

“EUSKAL MONOTEISMOA ATZO ETA GAUR”

Betidanik pentsatu dut gure arbaso zaharren sinismenak naturistak, panteistak eta manikeistak izateaz gain politeistak zirela, eta hori dela eta behin eta berriro aipatzen nituen nire artikuluetan gure sinismenetako jainko eta jainkosa ugariak Greziako edo Erromako mitologietakoak bailiren. Eta horrela aritzen nintzen, inkonzienteki aurreko idazle eta ikerlarik emandako

bideari itsu-mitsuki jarraitzen nintzaielakoz. Eta orain konturatzen ari naiz zein oker nenbilen. Aurre emandako politeismoaren ideia faltsu horrekin batera banuen ere beste ikuspegi oker bat garai bateko sinismenen eta kristau erlijioaren arteko dotrinak aztertzean, guztiz aurkakoak ikusten bait nituen, eta gaur ez zait horrela iruditzen, oso bestelako moldea bait daukat.

Gure sinismen zaharrei buruzko edozein liburutan, edozein artikulutan, gure jainko anitzei buruz mintzatzen zaigu, beren ekintza eta ezaugarriak ematen zaizkigularik. Hitzegiten zaigu jainko goren batetaz, Orzi izenekoaz alegia, baina honen irudia jorratu ondoren beste jainko eta jainkosa ttikiagoen zerrenda luzea ematen zaigu. Ez dago aipamen zehatzik gure arbaso zaharren politeismoaz, baina halako erreferentziak eman ondoren, horixe da danon gogoan geratzen dena. Eta nik ere, orain arte horrelako ikus-



Gure sinismenetan jainko haundi batez hitz egiten zaigu: Orzi.

pegia izan dut. Baina denboraren poderioz konturatu naiz, beti jainko goren batetaz hitzegiten zaigula, eta sinismen zahar horiek diotenez, beste guztia, beste jainko eta jainkosak, abereak, landareak, izadi osoa, eta baita gu gizon-emakumekok ere, Ortzi (Urtzi, Ostri, Osti,...) deitzen duten osotasun horren zati omen garela. Eta hemen dago arazoaren gakoa, dana baldin bada Ortzi, horek adierazi nahi digu jainko bakarra dagoela, eta ideia horren inguruko sinismen erlijiosoak panteista izateaz gain, monoteista dela ere. Kristau erlijioa esku artean harturik, ikus dezakegu zenbeste amabirjin eta santu ikus daitezkeen, bigarren mailako pertsonaien gisa, bere dotrinaren barruan. Gure sinismen zaharretan gauza bera gertatzen da, baina bigarren mailako pertsonaia edo indar horiei "jainko" eta "jeinu" deitzen zaie, nahiz eta benetan, lehenengo jainko goren horren zati direnez, bigarren mailako edo miniskuluetako jainkoak izan.

Gure sinismen zaharren panteismoan isladaturik aurkitzen da beren benetako monoteismoa. Bai jaun-andreok, gure arbaso zaharren dotrina, judu, kristau edo musulmanen erlijioen antzera monoteista zen, Akhenaton egipziar faraoiaren dotrina izan zen bezain monoteista. Baina gogora ditzagun banan banan eta orokorrean gure arbaso zaharren dotrina erlijiosoaren beste ezaugarri haundiak.

- 1.- NATURISTA zen, izadi edo naturaren indarrak jainkoen ekintzat hartzen bait ziren, baina ez ote da gauza bera egiten kristau erlijioaren barruan zenbait miraritz hitzegiten zaigunean? Edo iturri edota erreka ondoan azaldutako amabirjin ugarietaz mintzatzen direnean? Kosmoari, izateari irtenbide logikoa bilatzen zitzaien, beste edozein dotrinan egin den bezalaxe.
- 2.- MANIKEISTA zen, bi aurkako indarren orekan kokatzen bait zuten izate osoa. Lauburuaren bi mugimenduak, edota Mari(+) eta Maju(-), Atarrabi (+) eta Mikelats (-), Eki (+) eta Ilazki (-),... bezalako aurkako bikoteen adibideak horren lekukotzat har ditzakegularik. Baina oroitu beharra daukagu, bikote guzti horiek bigarren mailakoak direla, Ortziren menpekoak nolabait esateko. Eta kristau erlijioan gauza bera gertatzen da deabruarekin, hau ez bait da Jaungoikoaren beste aurkako muturra, bere azpian dagoen indar ezkorra baizik.
- 3.- PANTEISTA zen, den guztia Ortziren zatia bait da, baita gu gizon-emakumeok ere. Kristau erlijioan antzeko zerbait eskeintzen zaigu, gu gizakiok edo bestelako izakiak ez gara Jaungoikoaren zati, baina bai berak egindakoak.

.....

Badirudi, gure arbaso zaharrak Jainko Haundiaz hitzegiterakoan Ortziz mintzatzen direla. Bere arrastoak bizi-bizirik iraun du euskal hiztegian, fosilizaturik esango nuke nik, gure gaurko egunetaraino. Esate baterako: OSTEGUNA (Ostiren eguna), ORTZEGUNA (ORTZiren eguna), OSTIRALA (OSTIren egunaren hurrengoa), ORTZIRALA (ORTZiren egunaren hurrengoa), OSTOTSA (OSTIren hotsa = trumoa), ORTZADARRA (ORTZiren adarra), edo OSTADARRA (OSTIren adarra alegia),...

Bitxia bada ere, beste jainko-jainkosen aipamenik ez da egiten gure hiztegian. Honek adierazten digu garbiki, nire ustez, nori ematen zioten lehentasuna dibinitateen arloan.



Jainkoen eta euskaldunon bizikerak nahasi egiten ziren balizko mundu mitologiko hartan.

Bestalde, badugu oso testigantza polita Santiagora zihoan XII. Mendeko frantses erromes baten lumaren bitartez iritsi zaiguna. Aymeri Picaud izeneko erromes honek "LIBER SANCTI JACOBI" idatzi zuen, bere Santiagorako bidean zeharkatu eta ezagutu zituen herrien berriak emanaz eta euskaldunen hizkuntzari buruz honako lekukotasuna ematen digularik: "A Dios llaman URCIA, a la Virgen ANDREA MARIA, al pan OGUI, al vino ARDUN, a la carne ARAGUI, al pescado ARAIGN, a la casa ECHEA, al señor IAONA, a la señora ANDREA, a la iglesia ELICERA, al sacerdote BELATERRA, al trigo GARI y a Santiago IAONA DONNE IACUE" (LUIS VILLASANTE- "Historia de la Literatura Vasca"-tik aterea).

Testu honetan oso garbi esaten zaigu zernolako izena ematen zioten Jaungoikoari XII. Mendean euskaldun kristauak, ordurako Euskal Herria aront kristauturik bazegoen ere. Honi buruz bi teoria ditugu. Lehenengoaren arabera Euskal Herria ez zen kristautu X. Edo XI. Menderarte, Europako azkena kristautzen alegia. Teoria honen defendatzaileen artean Jose Maria Lakarra kokatu dezakegularik. Bigarren teoria batek dioenez, euskaldunak oso goiz kristautu ziren, erromatar garaian, hau da IV. Mendean edo, baina zenbait tokitan, oso berandu arte iraun zuten foko jentil zabalak omen zeuden. Juan Gorostiaga aipatu dezakegu bigarren teoria honen defendatzaileen artean. Dena den, bata edo bestea, XII. Menderako Euskal Herria kristauturik zegoen, eta hala ere kristau jainko berriari "ORTZI" zeitzen zioten. Honek, nire iritziz, adierazi nahi digu kristauak aurreko sinismenekin jarraipen antzeko bat bilatzen zutela, aurreko monoteismoa eta berria lotuz, eta hortarako Jaungoikoaren izena erabiltzeko orduan betiko izena zerabilkiten: ORTZI, bi erlijio monoteistak ibilaldi luze eta bakar batetik bideratu nahiko balituzte bezala. Lauaxetak, azken gerra garaiko olerkari haundiak, gauza bera egiten zuen bere olerkietan Jaungoikoaz mintzatzen zenean, sarritan "ORTZI" izena ematen bait zion.

Jakin badakit bi dotrinen artean makina ezberdintasun daudela, eta hortarako badaude ni baino askoz jantziago dauden teologoak, beraietaz luze eta sakon mintzatzeko. Baina

nik hemen esan nahi dudana zera da, gure arbaso zaharren sinismen erlijiosoa ez zela politeista, beti sinistarazi egin zaigun bezala, monoteista baizik, eta hau dela eta lehengo sinismen zaharretatik judu-latinoetara emandako pausua ez zela horren traumatikoa izan, beti pentsatu izan duguna baino askoz samurragoa baizik. Eta horregatik nahiz eta Euskal Herria, Europan kristautu zen azken herria izan, gaur begiratuta badirudi betidanik kristaua izan dela. Kristaua ez, baina monoteista bai!

JOSEBA ZABARREKO

